


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,9 igo dira 2023ko irailean

Urtetik urterako balioetan, 2023ko irailean, 2022ko irailaren aldean, prezioen igoera % 4,4ra iritsi da

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizea % 0,9 igo da 2023ko irailean, aurreko hilaren aldean. 2022ko hil berarekin alderatuta, berriz, kostuak % 4,4 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,8 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 1,4. 2022ko irailarekin alderatuta, Eraikingintzako prezioak % 4,5 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 4,3.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilarekin, hau da, 2023ko abuztuarekin alderatuta, **lehengaien** kostuak % 1,2 igo dira; **eskulanaren** kostuak, berriz, konstanteak izan dira. Urtetik urterako balioetan, aldiz, lehengaien kostua % 5,1 igo da, eta eskulanarena % 2,1.

Lehengaien kostua % 1,0 igo da hiletik hileraren Eraikingintzaren sektorean, eta % 1,8 Obra Zibilean. Urtetik urterako bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 5,2 igo dira, eta Obra Zibilekoak % 4,9.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Iraila 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,5	0,9	4,4
Eraikinak	125,8	0,8	4,5
Obra zibila	129,2	1,4	4,3
Lehengaiak	128,8	1,2	5,1
Eraikinak	128,0	1,0	5,2
Obra zibila	132,2	1,8	4,9
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehengaien prezioek azpisektore hauetan izan dituzte igoyerarik handienak 2023ko irailean, 2022ko irailaren aldean: *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 23,9), *Mineral ez-metalezkoak* (% 11,5) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 11,4). Aitzitik, sektoreko lehengaiak diren produktuak ekoizten dituzten azpisektore nagusi hauetan jaitsi dira prezioak: *Energia elektrikoa eta gasa* (% 25,2ko jaitsiera), *Industria kimikoa* (% 7,0ko atzerakada) eta *Petrolioia fintzea* (% 5,6ko beherakada).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Iraila 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	11,5
Zuraren eta kortxoaren industria	23,9
Petrolioia fintzea	-5,6
Industria kimikoa	-7,0
Kautxua eta plastikoa	11,4
Produktu mineral ez-metalezkoak	8,3
Metalgintza	-3,6
Metalezko artikulua	2,3
Material elektronikoa	1,7
Material elektrikoa	3,4
Makineriaren fabrikazioa	4,4
Altzarigintza	6,7
Energia elektrikoa eta gasa	-25,2

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Urriaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62